

Life on the coast. Pulako esperientziak



Emil Jurcan °

Kroaziak

aldaketa sakonak jasan ditu azkeneko hogeitun urteotan. Eredu komunistako ekonomia planifikatu bat izatetik, eredu neoliberalera pasatu baita. Horrek berebiziko garrantzia du Lurralde Antolakuntza eta Hirigintzan. Gainera, Kroaziak kostalde natural ikusgarria eta luzea du, turismoarentzat oso erakargarria. Horregatik guztiagatik, bertako biztanleak eta eremu naturala, eragile pribatuen presiopean bizi dira.

Kepa Iturraldek itzulia.

Testu hau Mediterraneoko eta ustelkeria kasu ugari duen herrialde bateko testuinguruan idatzia da, zehazki, Itsaso Adriatikoaren iparraldean kokaturiko Pula hirian dagoen egoera deskribatzen du. Egoera hau gaur egungo gizarte eta ekonomiaren isla da eta bertako biztanleen bizimoduak erabat baldintzatzen du. XX. mendearen bukaeran Jugoslavia ohiko errepublika komunista honek ekonomia-erlaketak jasan edo garai berrietara egokitu zen, neoliberalismoaren agindupean. Turismoa izan ezik, beste aktibitate ekonomiko guztia galdua edo izorratua izan da, eta, aldi berean, hutsik gelditu diren portu, eremu industrial zein militarrek okupatzen zituzten kilometro luzeak irabazi ditu. Duela hogeitun urte erabilera zuten instalakuntza hauek, ia denak, publikoak ziren. Gaur egun, lur-eremu zabal horiek esku pribatuetara pasatu dira edo pasatzeko prozesuan daude. **Pribatizazioaren bidean, lur-eremu hauen azken muga, erabilera turistikoa izango da.**

Hala ere, esan beharra dago aldaketa hauen guztien aurrean, erreakzio gogor zein mediterranea izan dela, eta erresistentziak indarra hartu duela. Erresistentzia eta injustizien aurka borrokatzeko desioa hazten joan dira, politika neoliberalen nolabaiteko jazarpena handitzen joan den heinean. Erresistentzia hiru maila edo planotan bana dezakegu. Egoera politiko ezegonkorra eta egoera gehiago okertzen duen ustelkeria ekonomia neoliberalaren kontrako kausatzat hartu dira. Bigarren erresistentzia-linea, kostaldeko legedia ezegonkoraren eta jabetza mota ezegonkoraren aurka joatea izan da. Hirugarren erresistentzia-linea bertako biztanleriak zehazten du. Biztanleak jabetu dira Mediterraneo, mundura lotzen dituen, beraien estatuak duen interes politikoak baino garrantzi handiagoa duela. Horregatik, erresistentzia maila altuena izango da, kostaldean hutsik gelditu diren eremuetan erabilera berriak ezartzea, modu autonomo eta espontaneoan. Betiere kapital globalaren edo nazio-interesen ginetik.

Kostaldea berebiziko garrantzia du kroaziar testuinguruan, eta kostaldea borrokagune bihurtzen da askotan, non Era-kunde Globalek indar handia duten eta erakunde lokalek aurre egitea zail duten. Kroaziako kostak, 15 urteren buruan, bilakaera berezia izan du. Gudaleku izatetik, espazio produktio informal batera pasatu zen hasieran (etxebizitza ilegalak), eta gaur egun, Europako espazio turistikoko gutiziatuenetakoa bezala ageri zaigu. Nolabaiteko kontrol-gura azaldu nahian, Kroaziako gobernuak neurriak hartzen ari da, mediterranean *basati* hau antolatzeke asmoarekin. Tartean da **kilometro bateko zabalera duen kostaldeko babesgunea arautzen duen legea**. Lege horren bitartez, kostaldea, Kroaziako barnealdeko beste guneekiko bereizten da, eta erakunde lokalei euren erabakia ezeztatzen die kostaldea Interes Nazionalako Gune izendatzeak. Horrek, kostaldeko biztanleak eta erakunde bigarren mailako moduan ezartzen ditu, haien luraren kudeaketa subiranotasun nazionalaren esku geratzen baita. Giorgio Agamben-ek deskribatzen eta bereizten ditu nolabaiteko bi talde gizartean, esanez zein diren *politika-bizitzak* honen agente aktiboak, eta zein *oinarritako bizitzak* ere antolatzeke gaitasunik ere ez dutenak (1).

Neoliberal kutsuko higiezinaren merkatuaren presioak prezio eta bizitza-kostuen igoera nabaria eragin du, eta bertako biztanleak ez dute nahikoa baliabide igoera horri aurre egiteko. Are gehiago, eskala handiko turismo-etxaldeen eta inbertsioek modu desegokian eragin diote inguru honetan hain errotua zegoen logelen alokairuari, zeina diru-sarrera gehigarria zen bertako jendearentzat. Ondorioz, berreraikitzeke debekuek, erabakitzeke eskubide-gaitasunik ezak, higiezinaren operazioek eta kolonizazio berriek bertako inbertsioak abiarazi dute. Bertakoak desagertuta, kostaldea *aske* geratuko den lurzorua izango da, kapitalismo berantiarren eta turismo-industriaren mesedean.



Gizon honek base militar abandonatuaren ur-eremua zein kaia okupatu ditu arrantzan jarduteko. Argazkilaria: Dejan Štifani

Badirudi kapitalismoak ito egiten duela. Inspirazioa bilatu du, gainera, espazioa konkistatzen, edo beste modu batera esanda, higiezin operazioekin, negozio handiarekin, bai hiri-mugen barruan zein kanpoan, lurzorua salerosketa-produktu bilakatu. Kapitalismoak lortu du lurraldearen planeamenduan produkzio mailan sarraraztea, betiere lurralde-produkzio hau erabaki- eta informazio-guneen pribilegio bihurtu delarik. Hiri-antolakuntzak informazio hori guztiori gorde eta isilarazten du. Planifikazio urbanistikoak kapitalismoaren helburu horiek estaltzen ditu, balio sasihumanistiko eta teknologiko baten manturarekin estaliz. Hau guztia lortzeko kapitalismoaren estrategia da erabiltzaileak eta herritar xumea presionatzea; Izan ere, biztanle hori ez dugu *egoiliar/residente* soil gisa utziko, balio ekonomikoa sortzen duen espazioa erostera behartuko dugu horrela (2).

Herritarra, bertan bizitzeko ahaleginetan, bizi-espazio ez-legalak egitera behartua dago. Etxebizitza ilegala, arazoa bada ere, badirudi ez dutela konpondu nahi. Estatuak, eragile lokalekin arazoa konpontzeko bitartekariak jarri beharrean, zuzenean etxebizitza espontaneo hauek birrintzea erabakitzen du, modu totalitarioan, eta era berean, inbertsiogileei bidea errazten die. **Turismoa diru-iturri errazegia da edonoren esku uzteko**, eta ondorioz, estatuak ez dio inori utziko, hain gutzitarra den eremu honetan indarra hartzen. Etxebizitza espontaneo ilegal hauek gero eta indar handiagoa hartzearen nahia zabaldu da, estatuari eta interes neoliberaleri kontra egiteko adierazgarri gisa.

Espazio leunak ez dira birian bakarrik sortzen ari, badira ere biriaren kontra sorturiko espazio zabaltzaileak, tenporalak, nomadak, "patch-work" modukoak, autoerakikiak, metalez eta adreiluz. Hau guztia biritik apartaturiko miseria-sortze baten ondorioa da, Thom-en formula

matematikoari jarraituz, leuntze erretroaktiboa bezala agertzen dena. Indar kondensatua da, kontratakerako egokia (3).

Kostaldeko planifikazioan, herritarrak euren interesak bermatuko dituzten aukerak galtzen ari diren heinean, kontraekintza informalak zuzenean ari dira hazten. Taktika berriak beharrezkoak eta premiazkoak dira, bazterketa-politiken aurrean. Eta bataila ez-artikulatu bat ari da garatzen.

Bibliografia

- (1) AGAMBEN, G. (1998): *Homo Sacer. Sovereign Power and Bare Life*, Stanford University Press.
- (2) LEFEBVRE, H.: *Urban revolution*.
- (3) DELEUZE, G./GUATTARI, F. (2002): *A Thousand Plateaus - Capitalism and Schizophrenia*, Continuum.

Emil Jurcan. Pulska grupa.

